



asesores de gerentes emprendedores

Sozietateko akziodun bakarrari

**“ANOETA KIROLDEGIA
CIUDAD DEPORTIVA DE ANOETA, S.A.U.”**

**2024 URTEKO AUDITORE INDEPENDIENTE BATEK
EGINDAKO URTEKO KONTUEN AUDITORETZA
TXOSTENA**

Donostia, 2025eko apirilaren 9an



AUDITORE INDEPENDENTE BATEK EGINDAKO URTEKO KONTUEN AUDITORETZA-TXOSTENA

ANOETA KIROLDEGIA-CIUDAD DEPORTIVA DE ANOETA, S.A.U., sozietatearen akziodun bakarrari:

Iritzia

“ANOETA KIROLDEGIA-CIUDAD DEPORTIVA DE ANOETA, S.A.U.” ren (Sozietatea) urteko kontuak auditatu ditugu. Urteko kontu hauek, 2024ko abenduaren 31ko balantzeak, eta amaitutako datan bukatutako ekitaldiari dagozkion galdu-irabazi kontuak, ondare garbiaren aldaketan egoera-orriak, diru-fluxuen egoera-orriak eta memoriak osatzen dituzte.

Gure iritziz, erantsitako urteko kontuek, arlo esanguratsu guztietan, 2024ko abenduaren 31n Sozietatearen ondarearen eta egoera finantzarioaren irudi Fidela adierazten dute, baita data horretan bukatu den ekitaldiari dagozkion emaitzak ere, aplikagarria zaion informazio finantzarioaren araudiaren arabera (memoriaren 2.oharrean adierazten dena), bereziki, bertan agertzen diren kontabilitate-printzipioekin eta - araeuekin.

Iritzia emateko oinarria

Auditoretza lana, Espainian indarrean dagoen kontu auditoretzaren arautegia jarraituz egin dugu. Gure erantzukizuna, arau horien arabera, *Urteko Kontuen Auditoretzaren inguruan, auditorearen erantzukizuna atalean zehazten da.*

Sozietatearengandik independenteak gara, Espainiako urteko kontuen auditoretzan jarraitu beharreko etika eskakizunen arabera (independentzia eskakizuna barne), urteko kontuen auditoretzaren arautegian xedatutakoarekin bat. Zentzu horretan, ez dugu urteko kontuen auditoretza ez den beste zerbitzurik eman, eta ez da gertatu aipatutako araudi-erregulatzailerearen arabera ezinbestekoa den independentzia arriskuan jarri zezakeen inolako egoerarik.

Lortu dugun auditoretza-ebidentziarekin, iritzia emateko oinarri nahikoa eta egokia dugula uste dugu.

Auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak

Auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak, gure iritzi profesionalaren arabera, egungo urteko kontuen auditoretzan hutsegite esanguratsuak egoteko arrisku esanguratsuenak bezala hartutakoak izan dira. Arrisku hauek, gure auditoretzaren testuinguruan eta urteko kontuen osotasunean hartu dira kontuan, baita horiei buruzko gure iritzian ere, eta ez dugu arrisku hauei buruzko iritzi berezirik ematen.

Auditoretza-txostenean jakinarazi beharko liratekeen esanguratsutzat hartu behar diren arrisku gehiago ez daudela zehaztu dugu.

Bestelako informazioa: kudeaketa-txostena

Bestelako informazioak 2024 ekitaldiko kudeaketa-txostena soilik biltzen du; berau egitea administratzaileen erantzukizuna da eta ez dago urteko kontuen barne.

Urteko kontuei buruzko gure auditoretza-irizirik ez du kudeaketa-txostena kontuan hartzen. Gure erantzukizuna kudeaketa-txostena dela eta, Espainian indarrean dagoen kontuen-auditoretzaren araudiaren arabera, hauxe da: kudeaketa-txostena eta urteko kontuak bat datozen aztertzea eta informatzea aipatutako urteko kontuen auditoretzan lortutako sozietatearen ezagupenean oinarrituz eta gainerako ebidentzia ezberdinik kontuan izan gabe. Halaber, gure erantzukizuna, kudeaketa-txostenaren edukia eta aurkezpena jarraitu beharreko araudiarekin bat datozen ebaluatzea eta informatzea da. Egindako lanean oinarrituz hutsegite esanguratsurik dagoela ondorioztatzen badugu, horren berri emateko beharra dugu.

Egindako lanean oinarrituz, aurreko paragrafoan deskribatutakoa, kudeaketa-txostenak biltzen duen informazioa 2024 ekitaldiko urteko kontuekin bat dator eta bere edukia eta aurkezpenak aplikagarria den araudia jarraitzen du.

Urteko kontuen inguruan, administratzaileen erantzukizuna.

Administratzaileen erantzukizuna da erantsitako urteko kontuak egitea, Sozietatearen ondarearen, egoera finantzarioaren eta emaitzen irudi fidela adieraziz, sozietateari aplikatu behar zaion Espainian indarrean dagoen informazio finantzarioaren araudia jarraituz, memoriaren 2 oharrean adierazten dena. Baita iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez daukaten urteko kontuak prestatzeko beraien ustez egokiena den barne kontrola ere.

Urteko kontuak prestatzean, administratzaileen erantzukizuna da funtzionamenduan dagoen empresa bezala jarraitzeko Sozietateak duen gaitasuna balioztatzea. Horretarako, dagokionaren arabera, funtzionamenduan dagoen enpresarekin zerikusia duten gaiak adieraziko dituzte funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiliz; salbuespena izango da administratzaileek sozietatea likidatzeko edo eragiketak amaitzeko asmoa dutenean, edo beste aukera errealistatik ez dagoenean.

Urteko kontuen auditoretzaren inguruan, auditorearen erantzukizuna

Gure helburuak hauek dira: urteko kontuek, osotasunean hartuz, iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez duten arrazoizko segurtasuna lortzea eta, gure iritzia barneratzen duen auditoretza-txostena igortzea.

Arrazoizko segurtasuna lortzea segurtasun maila altua da, baina ez du bermatzen Espainian indarrean dagoen kontuen-auditoretzaren araudia jarraituz egindako auditoretzak existitu daitekeen hutsegite esanguratsu bat beti antzeman dezakeenik. Hutsegiteak iruzurrengatik edo errakuntzengatik sor daitezke, eta materializat hartuko dira, bai banaka bai batuta hartuta, urteko kontuetan oinarrituz erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan arrazoiki eragiten dutela aurreikusten bada.

Espainian indarrean dagoen kontuen-auditoretzaren arautegia jarraituz egindako auditoretza lan guztian, eszeptizismoz eta irizpen profesionala aplikatuz jardun dugu. Baita ere:

- ✓ Urteko kontuetan, iruzurrengatik edo errakuntzengatik, hutsegite esanguratsuak egoteko arriskuak identifikatu eta balioztatu egiten ditugu; arrisku horiei erantzuna emateko prozedurak diseinatu eta aplikatu ditugu; eta ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzia emateko oinarria izateko. Iruzurreragatik gerta daitezkeen hutsegite esanguratsua ez antzemateko arriskua, errakuntzengatik eman daitezkeen hutsegite esanguratsua ez antzematekoa baino altuagoa da, izan ere iruzurrak kolusioaren, faltsutzearen, nahita egindako ez-egitearen, nahita egindako adierazpen okerren, edo barne-kontrolaren saihepenaren ondorioz izan daitezke.
- ✓ Auditoretzarako garrantzitsua den barne-kontrolaren ezagupena lortzen dugu, egoeraren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatzeko helburuarekin; eta ez, erakundearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko helburuarekin.
- ✓ Aplikaturako kontabilitate-politikak egokiak diren balioztatzen dugu; baita kontabilitate-estimazioen arrazoigarritasuna eta administratzaileek emandako informazioa ere.
- ✓ Administratzaileek funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa egoki erabili duten ondorioztatzen dugu; eta lortutako auditoretza ebidentzian oinarrituz, funtzionamenduan dagoen enpresa bezala jarraitzeko Sozietateak daukan gaitasuna zalantzan jar dezakeen gertaera edo baldintzekin zerikusia duen ziurgabetasun esanguratsurik dagoen edo ez ondorioztatzen dugu. Ziurgabetasun esanguratsua dagoela ondorioztatzen badugu, gure auditoretza-txostenean urteko kontuetan honi buruz ematen den informazioari arreta jarri behar diogu edo, emandako informazioa ez bada egokia, iritzi-aldatua eman behar dugu. Gure ondorioak, auditoretza-txosteneko datara arte lortutako auditoretza-ebidentzian oinarritzen dira. Hala ere, etorkizuneko gertaeren edo baldintzen ondorioz, Sozietateak funtzionamenduan dagoen enpresa izatez utz dezake.
- ✓ Urteko kontuen aurkezpen globala, egitura eta edukia balioztatzen dugu, emandako informazioa barne; baita urteko transakzioak eta hauen inguruko gertaerak irudi fidela erakusteko moduan jasotzen dituzten ere.

Erakundeko administratzaileekin harremanetan jartzen gara, besteak beste, planifikaturako auditoretzaren irismena eta egite datak, eta auditoretzan azaldutako arlo esanguratsuak jakinarazteko, baita barne-kontrolen antzemandako balizko gabezia esanguratsuak jakinarazteko ere. Administratzaileei jakinarazi zaizkien arrisku esanguratsuen artean, egungo urteko kontuen auditoretzan adierazgarriak direnak zehaztu ditugu, hauek izanik, ondorioz, gure ustez arriskurik garrantzitsuenak.

Arrisku hauek gure auditoretza-txostenean deskribatzen ditugu, baldin eta legezko edo erregelamenduzko xedapenek gaia argitaratzea debekatzen ez badute.

AGEM CONSULTORES Y AUDITORES, S.L.
(ROAC-S2107)

Kontu-lkuskari Bazkidea
Eider Ibarzabal Barrenechea
(ROAC 21664)

Donostia, 2025eko apirilaren 9an



AGEM CONSULTORES Y
AUDITORES, S.L.

2025 Núm. 03/25/00472

Informe de auditoría de cuentas sujeto
a la normativa de auditoría de cuentas
española o internacional



ANOETA KIROLDEGIA-CIUDAD DEPORTIVA DE ANOETA, S.A.U 2024 EKITALDI-ITXIERAKO BALANTZEA (Euroak)			
AKTIBOA	Oharrak	2024	2023 (*)
A) AKTIBO EZ-KORRONTEA		70.843.187,43	72.433.155,44
II. Ibilgetu materiala.	4.1, 5	141.670,30	103.845,74
1. Lursailak eta eraikinak.		14.468,05	14.678,25
2. Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala.		0,00	(3.284,92)
3. Ekoizpen-bidean den ibilgetua eta aurrerakinak.		127.202,25	92.452,41
III. Ondasun higiezinetakako inbertsioak.	4.1, 6	67.401.517,13	69.029.309,70
1. Lursailak.		675.314,72	675.314,72
2. Eraikinak.		66.726.202,41	68.353.994,98
V. Epe luzeko finantza-inbertsioak.	4.4, 8	3.300.000,00	3.300.000,00
2. Hirugarrenei emandako kredituak.		3.300.000,00	3.300.000,00
B) AKTIBO KORRENTEA		4.463.397,74	4.226.553,15
III. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak.	4.4, 8.1	1.079.070,91	3.820.437,98
1. Bezeroak, salmentengatik eta zerbitzu-emateengatik		1.065.745,88	972.166,53
3. Hainbat zordun.		13.325,03	2.848.271,45
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak.	4.4	3.384.326,83	406.115,17
1. Diruzaintza.		3.384.326,83	406.115,17
AKTIBOA GUZTIRA (A+B)		75.306.585,17	76.659.708,59
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	Oharrak	2024	2023 (*)
A) ONDARE GARBIA		17.805.568,70	18.129.693,37
A-1) Fondo propioak.	9	5.139.389,39	5.134.976,76
I. Kapitala.		5.036.680,50	5.036.680,50
1. Kapital eskrituratua		5.036.680,50	5.036.680,50
II. Jaulkipen-prima.		30,88	30,88
III. Erreserbak.		2.975.120,10	3.030.694,26
2. Bestelako erreserbak.	2.7	2.975.120,10	3.030.694,26
V. Aurreko ekitaldietako emaitzak.		(2.876.854,67)	(3.169.607,08)
1. Gaineratikoak.		101.305,02	101.305,02
2. (Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak)		(2.978.159,69)	(3.270.912,10)
VII. Ekitaldiko emaitza.	3	4.412,58	237.178,20
A-3) Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak.	4.5, 14	12.666.179,31	12.994.716,61
B) PASIBO EZ-KORRONTEA		56.164.478,97	57.233.057,40
II. Epe luzeko zorrak.	4.4, 8.2	3.303.598,27	3.304.093,27
5. Bestelako pasibo finantzarioak.		3.303.598,27	3.304.093,27
III. Taldeko enpresekin eta elkartuekin epe luzeko zorrak.	4.10, 17	3.300.000,00	3.300.000,00
V. Epe luzeko aldizkapenak.	13	49.560.880,70	50.628.964,13
C) PASIBO KORRONTEA		1.336.537,50	1.296.957,82
III. Epe laburreko zorrak.	8.2	93.000,00	0,00
5. Bestelako pasibo finantzarioak.		93.000,00	0,00
V. Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak.	4.4, 8.2	175.454,12	228.874,44
1. Hornitzaileak.		26.287,00	0,00
2. Hainbat hartzekodun.		98.820,40	151.317,86
5. Zerga korrientearen pasiboak.	4.7, 10	0,00	22.655,15
6. Administrazio Publikoekin bestelako zorrak		50.346,72	54.901,43
VI. Epe laburreko aldizkapenak.	13	1.068.083,38	1.068.083,38
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA (A+B+C)		75.306.585,17	76.659.708,59

(*) Konparazioak egiteko berriro adierazitako zenbatekoak (ikus 2.3 eta 2.7 oharra)

Donostia, 2025eko martxoaren 31a



ANOETA KIROLDEGIA - CIUDAD DEPORTIVA DE ANOETA, S.A.U. 2024KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIKO GALDU-IRABAZIEN KONTUA (Euroak)			
	Oharrak	(Zor) Hartzeko	(Zor) Hartzeko
		2024	2023 (*)
A) ERAGIKETA JARRAITUAK			
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia.	4.8, 11.1	2.291.733,02	2.456.016,52
b) Zerbitzu-eremateak.		2.291.733,02	2.456.016,52
7. Ustiapeneko bestelako gastuak.	4.8	(993.366,98)	(956.575,68)
a) Kanpoko zerbitzuak.		(896.088,08)	(903.154,39)
b) Tributuak.		(97.278,90)	(53.357,54)
c) Merkataritza-eragiketengatiko horniduren galerak, narriadura eta aldaketak.		0,00	(63,75)
8. Ibilgetuaren amortizazioa.	4.1, 5 eta 6	(1.624.717,85)	(1.630.015,43)
9. Ibilgetu ez-finantzarioko diru-laguntzen eta bestelakoen egozpena.	4.5, 14	328.537,30	328.688,40
13. Bestelako emaitzak.	4.8, 11.2	0,00	60.945,22
A.1) USTIAPENeko EMAITZA (1+7+8+9+13)		2.185,49	259.059,03
14. Sarrera finantziarioak.	4.8	2.227,09	0,00
b) Balore negoziagarrien eta bestelako finantza-tresnen sarrerak.		2.227,09	0,00
2. Hirugarren enpresetakoak.		2.227,09	0,00
A.2) EMAITZA FINANTZARIOA (14)		2.227,09	0,00
A.3) ZERGA AURREKO EMAITZA (A+B)		4.412,58	259.059,03
19. Mozkinen gaineko zergak.	4.7, 10	0,00	(21.880,83)
A.4.) ERAGIKETA JARRAITUEN EKITALDIKO EMAITZA (A.3+19)		4.412,58	259.059,03
A.5) EKITALDIKO EMAITZA (A.4)		4.412,58	237.178,20

(*) Konparazioak egiteko berriro adierazitako zenbatekoak (ikus 2.3 eta 2.7 oharra)

Donostia, 2025eko martxoaren 31a



ANOETA KIROLDEGIA - CIUDAD DEPORTIVA DE ANOETA, S.A.U.
2024KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIARI DAGOKION ONDARE GARBIAREN ALDAKETEN EGOERA ORRIA
(Euroak)

A) 2024KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIARI DAGOKION AITORTUTAKO DIRU SARRERA ETA GASTUEN EGOERA

	Oharrak	31/12/2024	31/12/2023
A) Galdu-irabazien kontuaren emaitzak	3	4.412,58	292.752,41
B) Zuzenean ondare garbira egotzitako sarrerak eta gastuak guztira (V)		0,00	0,00
Galdu-irabazien kontura egindako transferentziak VIII. Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	4.12, 14	(328.537,25)	(328.688,40)
C) Galdu-irabazien kontura egindako transferentziak guztira (VIII)		(328.537,25)	(328.688,40)
KONTABILIZATUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA (A+B+C)		(324.124,67)	(35.935,99)

B) 2024KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIKO ONDARE GARBIAREN ALDAKETA GUZTIEN EGOERA-ORRIA

	Kapital eskrituratua	Jaulkipen prima	Erreserbak	Aurreko ekitaldiletako emaitzak	Ekitaldiko emaitza	Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	GUZTIRA
A. 2022 URTE AMAIERAKO SALDOA	5.036.680,50	30,88	3.875.910,55	(3.223.533,43)	53.926,35	16.642.865,29	22.385.880,14
II. Irizpide-aldaketengatik 2022 eta aurrekoetan egindako doikuntzak (2,7 oharra)			(832.107,94)		(13.108,35)	(3.319.460,28)	(4.164.676,57)
B. 2023 URTE HASIERAKO SALDO DOITUA	5.036.680,50	30,88	3.043.802,61	(3.223.533,43)	40.818,00	13.323.405,01	18.221.203,57
I. Aitortutako sarrera eta gastuak guztira					292.752,41	(328.688,40)	(35.935,99)
III. Ondare garbiaren bestelako aldaketak			(13.108,35)	53.926,35	(40.818,00)		0,00
C. 2023 URTE AMAIERAKO SALDOA	5.036.680,50	30,88	3.030.694,26	(3.169.607,08)	292.752,41	12.994.716,61	18.185.267,57
II. Irizpide-aldaketengatik 2023ko egindako doikuntzak (2,7 oharra)					(55.574,21)		(55.574,21)
D. 2024 URTE HASIERAKO SALDO DOITUA	5.036.680,50	30,88	3.030.694,26	(3.169.607,08)	237.178,20	12.994.716,61	18.129.693,37
I. Aitortutako sarrera eta gastuak guztira					4.412,58	(328.537,25)	(324.124,67)
III. Ondare garbiaren bestelako aldaketak			(55.574,16)	292.752,41	(237.178,20)		0,00
E. 2024 URTE AMAIERAKO SALDOA	5.036.680,50	30,88	2.975.120,10	(2.876.854,67)	4.412,58	12.666.179,31	17.805.568,70

Donostia, 2025eko martxoaren 31a



ANOETA KIROLDEGIA - CIUDAD DEPORTIVA DE ANOETA, S.A.U.
2024an AMAITUTAKO EKITALDIKO DIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRIA
(Euroak)

	Oharrak	2024	2023
A) USTIAPEN-JARDUERETAKO DIRU-FLUXUAK			
1. Ekitaldioko zerga aurreko emaitza.		4.412,58	259.059,03
2. Emaitzaren doikuntzak.		1.293.953,46	1.301.390,78
a) Ibilgetuaren amortizazioa (+).	5, 6	1.624.717,85	1.630.015,43
b) Narriaduragatik egindako balio-zuzenketak (+/-).	8, 1, 9	0,00	63,75
d) Diru-laguntzen egozpena (-).	14	(328.537,30)	(328.688,40)
g) Sarrera finantzarioak (-).		(2.227,09)	0,00
3. Kapital korrientearen aldaketak		1.642.023,52	(1.486.172,89)
b) Zordunak eta kobratzeko bestelako kontuak (+/-).		2.741.367,07	12.735,27
d) Hartzekodunak eta ordaintzeko bestelako kontuak (+/-).	8	(30.765,17)	(432.696,61)
e) Bestelako pasibo korrienteak (+/-).		(495,00)	(7.192,94)
f) Bestelako aktibo eta pasibo ez-korrienteak (+/-)		(1.068.083,38)	(1.059.018,61)
4. Ustiapen-jardueretako bestelako diru-fluxuak.		(20.428,06)	(1.411,10)
c) Interes-kobrantzak (+).		2.227,09	0,00
d) Mozkinen gaineko zergen kobrantzak (ordainketak) (+/-).	10	(22.655,15)	(1.411,10)
5. Ustiapen-jardueretako diru-fluxuak (+/--1+/-2+/-3+/-4)		2.919.961,50	72.865,82
B) INBERTSIO-JARDUERETAKO DIRU-FLUXUAK			
6. Inbertsioen ordainketak (-).		(34.749,84)	(47.552,41)
c) Ibilgetu materiala.	6	(34.749,84)	(47.552,41)
7. Desinbertsioen kobrantzak (+).		93.000,00	0,00
e) Bestelako aktibo finantzarioak.	8	93.000,00	0,00
8. Inbertsio-jardueretako diru-fluxuak (7-6)		58.250,16	(47.552,41)
E) ESKUDIRUAREN EDO BALIOKIDEEN GEHIKUNTZA/GUTXITZE GARBIA (+/-5+/-8+)			
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi-hasieran		406.115,17	380.801,76
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi-amaieran		3.384.326,83	406.115,17

Donostia, 2025eko martxoaren 31a



URTEKO EKITALDIARI DAGOKION MEMORIA 2024KO ABENDUAREN 31N AMAITUTA

1. OHARRA.- ENPRESAREN JARDUERA

ANOETA KIROLDEGIA - CIUDAD DEPORTIVA DE ANOETA, S.A.U. (aurrerantzean, Sozietatea) 1989ko urriaren 2an eratu zen eta gaur egun bere egoitza soziala Anoeta Pasealekuan 1, Donostia (Gipuzkoa) kokatzen da.

Sozietatearen helburu soziala Donostia udalerrian dagoen Anoeta kirol-guneko obrak eta zerbitzuak sustatzea eta kudeatzea da, bere sorkuntza-estatutuan jasotzen den bezala.

Sozietateko akzioen %100eko jabea Donostiako Udalarena da.

Sozietateak erabiltzen duen moneta funtzionala euroa da.

Ekitaldi ekonomikoa bat dator urte naturalarekin.

2. OHARRA.- URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

2.1. Irudi zehatza:

2024ko abenduaren 31an amaitutako ekitaldiko urteko kontuak, hemen gehituak, Sozietatearen kontabilitate-erregistroetatik eskuratu dira, eta Kontabilitate Plan Orokorra onartzen duen 1514/2007 Errege Dekretuaren eta haren ondorengo aldaketen arabera aurkezten dira, dagokion ekitaldiko ondarearen, Sozietatearen finantza-egoera eta emaitzen eta diru-fluxuen Irudi-zehatza erakusteko helburuarekin.

Urteko kontuak Administrazio Kontseiluak egin ditu eta Akziodunen Batzar Nagusiak, oraindik onespena eman ez badu ere, aldaketarik egin gabe onartuko dituela aurreikusten da. 2023ko apirilaren 25ean onartu zituen Sozietatearen Ohiko Batzar Nagusiak 2023 ekitaldiko urteko kontuak.

2.2. Aplikatutako kontabilitate-printzipioak:

Ez dira nahitaezkoak ez diren kontabilitate-printzipioak aplikatu. Atxikitako urteko kontuak prestatzeko erabilitako kontabilitate-printzipioak Merkataritza Kodean, indarrean dagoen Kapital Sozietateen Legean eta Kontabilitate Plan Orokorrean jasota daudenak dira.

Ez da urteko kontu horiek egitean eragin esanguratsua izan zezakeen kontabilitate printzipiorik aplikatu gabe geratu.



2.3. Informazioa alderatzea

Konparaketak egin ahal izateko, egoera-balantzearen, galera-irabazien kontuaren, ondare garbiaren aldaketan egoera-orriaren eta urteko kontuen memoriaren partida bakoitzean 2024ko ekitaldiko zifrekin batera, aurreko ekitaldiari dagozkionak aurkezten dira.

Ez dago ekitaldiko urteko kontuak aurrekoarekin alderatzea eragozten duen arrazoirik, aurreko ekitaldietan epe luzeko zorren epigrafean ageri ziren epe luzeko taldeko enpresekin zituzten zorren sailkapenari dagokiona salbu, bai eta jardueraren berezko diru-sarrerei dagokiena ere, egungo ekitaldian "Negozio-zifraren zenbateko garbian" barneratzen dira eta aurreko urteetan "Ustiapeneko beste diru-sarrera batzuk" atalean agertzen ziren. Horrez gain, aribideko ibilgetuak epigrafean estadioa birmoldatzeko obrarengatik aktibatu diren zenbatekoak birsailkatu zaizkio, aurreko ekitaldietan higiezin inbertsioen epigrafean ageri zirenak.

Ondorioz, urteko kontu hauetan, 2023ko ekitaldiari dagozkion zifrak berridatzi egin dira, egungo ekitaldikoekin alderagarriak izan daitezzen, ondare garbian inolako eraginik izan gabe. Egindako birsailkapenen xehetasunak honako hau dira:

	2023 (zuzenduta)	2023 (urteko kontuak)
Balantze aldaketak		
<i>Aktibo ez-korrontea</i>		
I. Ibilgetu materiala	103.845,74	73.845,74
II. Ondasun higiezinetakoa inbertsioak	69.865.374,65	69.895.374,65
<i>Pasibo ez-korrontea</i>		
II. Epe luzeko zorrak	4.093,27	3.304.093,27
III. Taldeko enpresekin eta elkartuekin epe luzeko zorrak	3.300.000,00	0,00
Guztira	73.273.313,66	73.273.313,66

	2023 (zuzenduta)	2023 (urteko kontuak)
Galdu-irabazien kontuen aldaketak		
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia	2.305.420,35	0,00
5. Ustiapeneko bestelako sarrerak	0,00	2.305.420,35
Guztira	2.305.420,35	2.305.420,35

2.4. Ziurgabetasunaren balorazioaren eta estimazioaren alderdi kritikoak

Atxikitako urteko kontuak egiteko, Sozietatearen administratzaileek egindako zenbatespenak erabili dira horietan erregistratutako aktibo, pasibo, diru-sarrera, gastu eta konpromiso batzuk baloratzeko. Funtsean, zenbatespenak honako hauei dagozkie:

- Aktibo material eta ukiezinen bizitza erabilgarria (ikusi 4.1 eta 4.2 oharrek)
- Aktibo jakin batzuen balio narriaduragatiko galera posibleen baloraketa (ikusi 4.1, 4.2, 4.4 eta 4.5 oharrek)

Nahiz eta estimazio horiek 2024ko ekitaldiaren itxieran eskuragarri zegoen informaziorik onenean oinarrituta egin, litekeena da etorkizunean gerta daitezkeen gertakariak hurrengo ekitaldietan (gorantz edo beharantz) aldaketak egin behar izatea, eta hori egin behar balitz, modu prospektiboan egingo litzateke.



Sozietatearen Administrazio Kontseiluak bere finantza-egoerak funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioaren arabera prestatu ditu, erakundearen jarraitasunari buruzko zalantzarik ez dagoela ulertzen baitu, ez eta hurrengo ekitaldian aktibo edo pasiboen balioan aldaketa nabarmenak eragin ditzaketen arrisku garrantzitsurik ere.

2.5. Hainbat partidatan bildutako elementuak

Sozietateak ez du ekitaldiaren itxiera balantzean, galera-irabazien kontuan eta ondare garbiaren aldaketen egoera-orrian partida batean baino gehiagotan jasota agertzen den ondare-elementurik.

2.6. Aldaketak kontabilitate-irizpideetan

2024ko ekitaldian ez da kontabilitate-irizpideen aldaketarik izan.

2.7. Akatsen zuzenketa

Atxikitako urteko kontuak egitean, 900.790,50 euroko erreserben murrizketa garbia sartu da, aurreko ekitaldietatik datozen diru-laguntza jakin batzuen emaitzen egozketan eta iada erabiltzen ez diren elementu zaharren bajagatik izandako doikuntzen ondorioz. Horrez gain, pasiboari ondare garbian jasotako diru-laguntzen zati bat birsaikatu zaio, ez delako uste itzulezintzat jotzeko bete beharreko baldintzak betetzen dituztenik.

Aurreko ekitaldiarekin alderagarriak diren finantza-egoerak aurkeztu direnez, aldaketa horrek 2023ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako zenbatekoak berridaztea eragin du, konparaketarako soilik. Horrela, hemen azaldutako 2023ko ekitaldiko saldoak ez datoz bat Akziodunen Batzar Nagusiak onartutakoekin, honako zifra hauen arabera:

Kontzeptua	Aktibo Ez Korrontea	Pasibo Ez Korrontea	Pasibo Korrontea	Ondare garbia			Galdu-irabazien kontua		
				Emaitza	Erreserbak	Diru-laguntzak	Guztira	Gastuak	Sarrerak
Anoetako Estadioaren kanona		25.673,64	(6.418,41)	(6.418,41)	(12.836,82)		(19.255,23)		(6.418,41)
Diru-laguntza itzulgarria		3.300.000,00		(62.264,15)	(124.628,30)	(3.113.207,55)	(3.300.000,00)		(62.264,15)
Elementu zaharren balia	(836.064,95)			13.108,35	(707.851,17)	(141.322,13)	(836.064,95)		(2.666,46)
Guztira	(836.064,95)	3.325.673,64	(6.418,41)	(55.574,21)	(845.216,29)	(3.254.529,68)	(4.155.320,18)	(15.774,81)	(71.349,02)

3. OHARRA.- EMAITZAK APLIKATZEA

2024ko emaitza banatzeari dagokionez, Administrazioaleek honako proposamen hau egingo diote Akziodunen Batzar Nagusiari, batzar horrek onar dezan:

	2024	2023 (*)
Banaketa-oinarria		
Galdu-irabazien kontuaren saldoa	4.412,58	292.752,41
Aplikazioa		
Aurreko ekitaldietako galerak konpentsatzeko	4.412,58	292.752,41

(*) 2023ko zutabearen sartutako datuak bat datoz Batzar Nagusia onartutakoekin, eta ez dira berriz adierazi alderaketa egiteko.

Erakundeak ez du dibidendurik banatu azken 5 ekitaldietan, eta ekitaldi guztietan bazkide bakarrak urteko kontuak onartu ditu.



4. OHARRA.- ERREGISTRO- ETA BALORAZIO-ARAUAK

2024ko abenduaren 31ko urteko kontuak egiteko, Sozietateak honako erregistro- eta balioespen-arau hauek erabili ditu batik bat, betiere indarrean dagoen legediari jarraiki:

4.1. Ondasun higiezinetak inbertsioak eta ibilgetu materiala:

"Ondasun higiezinetak inbertsioak" errentak lortzeko Sozietateak dituen aktibo ez-korronteak, higiezinak direnak, biltzen ditu. Aktibo horiek erregistratu eta baloratzeko, ibilgetu materialerako irizpide berberak aplikatzen dira.

Ibilgetu materiala eta ondasun higiezinetak inbertsioak beren eskuratzeko- kostuan baloratu dira, eta dagokien amortizazio metatuaz eta izan duten nariaduragatik galerez garbi azaldu dira, betiere 11/1996 Foru Arauan xedatutakoaren arabera eguneratuta. Elementu bakoitza eskuratzeko ordaindutako prezioaz gain, kostuak gastu hauek ere biltzen ditu: eraikuntzaldian sortutako finantza-gastuak, aktiboa erosteari edo fabrikatzeari zuzenean egotz dakizkiokeenak, betiere erabiltzeko moduan egoteko urtebete baino gehiago behar badute. Ekitaldian ez da kontzeptu horrengatik zenbatekorik aktibatatu.

Elementu osoen ordezkapenak edo berritzeak eta xedezko ondasunaren balio-bizitza, produktibitatea edo ahalmen ekonomikoak areagotzeko handitze -, modernizazio- edo hobekuntza-kostuak ibilgetu materialaren zenbatekorik handien gisa kontabilizatzen dira. Hori dela-eta, ordezkatutako edo berritutako elementuak kontabilitatek ateratzen dira. Mantentzeko, kontserbatzeko eta konpontzeko aldizkako gastuak emaitzei egozten zaizkie, sortzapen-printzipioari jarraiki, gastu horiek egin diren ekitaldiko kostu gisa.

Amortizazioa aktiboak eskuratzeko kostuaren gainean kalkulatu da, kostu horri aktibo horien hondar-balioa kenduta, betiere metodo lineala aplikatuz. Aktibo materialen amortizaziorako urteko zuzkidurak galdu-irabazien kontuan kontrapartida ezarriz egiten dira. Era berean, honako ehuneko hauek kontuan hartu eta aplikatu dira, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legeari jarraiki:

Kontzeptua	% Amortizazioa
Eraikuntzak	3%
Bestelako instalazioak	15%
Altzariak	15%
Informazio prozesuen ekipamenduak	25%

Aurrekotik salbuetsirik daude Anoetako estadioarekin zerikusia duten inbertsioak, birmoldaketa amaitu ondoren haien bizitza baliagarria 2074. urtera arte luzatu dela kalkulatu baita; data horretara arte amortizatuko da.

Eskuraketak erabiltzen hasten direnetik aurrera hasten dira amortizatzen.

Sozietatearen Administrazioaileek ustez, aktiboen kontabilitate-balioak ez du gainditzen horien balio berreskuragarria.

Aktibo bat besterentzearen edo erretiratzearen ondoriozko mozkina edo galera salmentaren mozkinaren eta aktiboak liburuetan duen zenbatekoaren arteko kenduratzat kalkulatu da, eta galdu-irabazien kontuan aitorzen da.



4.2. Aktibo ez-finantzarioen balioa narriatzearen ondoriozko galerak

Aktiboari narriatzearen ondoriozko galera-probak ezartzen zaizkie, betiere gertakizunen batek zirkunstantzia-aldaketaren batek kontabilitate-balioa agian ez dela berreskuratuko adierazten badu. Narriaduragatiko galera aktiboaren kontabilitate-balioak bere zenbateko berreskuragarriaren gainetik duen soberakinaren arabera hartzen da aintzat. Horri dagokionez, zenbateko berreskuragarritzat hartuko da aktiboaren arazoizko balioa ken salmenta-kostuak edo erabilera-balioa (bietatik handiena).

Aurreko ekitaldietan aktibo batean aintzat hartutako narriaduragatiko galerak itzuli egiten dira, beren zenbateko eskuragarriaren gaineko estimazioetan aldaketa izaten denean; hain zuzen ere, aktiboaren balioa gehitzen da, muga saneamendua egin ez balitz aktiboak liburuetan izango zukeen balioa izanik.

Ekitaldian, Sozietateak ez du inolako kontzepturik erregistratu aktiboaren balioaren narriadura gisa.

4.3. Errentamendu operatiboak

Errentamendu operatiboko eragiketetan, errentamenduan hartutako ondasunaren jabetza eta funtsean ondasun horri dagozkion arrisku eta abantaila guztiak errentatzaileari dagozkio.

2023ko abenduaren 31n, Sozietateak errentatzaile gisa baino ez ditu errentamendu-kontratuak.

Errentamenduak ekarritako diru-sarrerak galdu-irabazien kontura ordaintzen dira linealki, kontratuaren balio-bizitzaren arabera.

4.4. Finantza-tresnak

Sozietateak finantza-tresnen kapituluan erregistratuta ditu enpresa batean aktibo finantzario bat sortzen duten kontratuak, eta, aldi berean, beste enpresa batean pasibo finantzario bat edo ondare-tresna bat sortzen dutenak. Beraz, arau hau finantza-tresna hauei aplikatu behar zaie:

4.4.1. Finantza-aktiboak

Finantza-aktiboak, balorazioaren ondorietarako, kategoria hauetakoren batean sailkatzen dira:

a) Kostu amortizatuko finantza-aktiboak

Finantza-aktibo bat kategoria honetan sartzen da, baita merkatu antolatu batean negoziatzeko onartuta dagoenean ere, baldin eta enpresak inbertsioari eusten badio -kontratu gauzatzearen ondoriozko eskudiru-fluxuak jasotzeko- eta finantza-aktiboaren kontratu-baldintzek eskudiru-fluxuak sortzen badituzte zehaztutako datetan -eskudiru-fluxu horiek soilik izango dira printzipalaren kobrantzak eta ordaindu gabeko printzipalaren zenbatekoaren gaineko interesak -.



Ordaindu gabeko printzipalaren zenbatekoaren gaineko kobrantza nagusiak eta interesak baino ez diren kontratuko eskudiru-fluxuak, berez, mailegu arruntaren edo ohikoaren izaera duen akordio bati dagozkio. Edonola ere, eragiketa zero interes-tasan edo merkatutik beherako interes-tasan adostu ahal izango da.

Oro har, kategoria honetan merkataritza-eragiketen ondoriozko kredituak sartzen dira (ondasun-salmentan eta enpresaren trafiko-eragiketen ondoriozko zerbitzugintzan sortzen diren finantza-aktiboak, kobrantza-atzeratua dutenak), baita merkataritzakoak ez diren eragiketen ondoriozko kredituak ere, hau da, ondare-tresna eta eratorriak ez izan arren merkataritza-jatorriak ez dutenak eta zenbateko zehatza edo zehazgarria duten kobrantzak dituztenak, baldin eta enpresak emandako mailegu- edo kreditu-eragiketetatik badatoz. Hau da, kategoria horren barruan daude kobratu beharreko maileguak eta kontuak, baita mugaeguna finkatua duen zorraren balio adierazgarriak eta zenbatekoa zehatza edo zehazgarria duten kobrantzak ere, betiere merkatu aktibo batean negoziatzen direnean eta sozietateak horiek mugaegunera arte kontserbatzeko asmoa eta ahalmena duenean.

Hasiera batean, arrazoizko balioan gehi zuzenean atxiki dakizkiekeen transakzioaren kostuetan baloratuko dira. Hala ere, urtebete baino gutxiagoko epemuga duten eta kontratuzko interes-tasa espliziturik ez duten merkataritza-eragiketen ondoriozko kredituak, langileei emandako kredituak, kobratu beharreko dibidenduak eta ondare-tresnen gaineko ordainketak -horien zenbatekoa epe laburrean jasotzea espero dabilen balio nominalaren arabera baloratu ahal izango dira, baldin eta eskudiru-fluxuak ez eguneratzearen ondorioa adierazgarria ez bada.

Ondorengo balorazioa, beraz, kostu amortizatuan egiten da, eta sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatuko dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta. Dena dela, aurreko atalean xedatutakoari jarraituz, hasiera batean beren balio nominalaren arabera baloratzen diren eta urtebete baino gutxiagoko epemuga duten kredituak zenbateko horretan baloratzen jarraituko dira, narriatu direnean izan ezik. Jaulkitzailearen finantza-zailtasunen ondorioz, finantza-aktibo baten kontratuzko eskudiru-fluxuak aldatzen direnean, enpresak aztertuko du ea bidezkoa den balio-narriaduraren ondoriozko galera kontabilizatzea.

Kobratu beharreko kontuetatik berreskuratu beharreko zenbatekoaren eta liburuetan erregistratuta dagoen balioaren artean dagoen diferentziaren ondoriozko narriadurak erregistratzen ditu sozietateak. Ekitaldiaren itxieran, gutxienez, egiten dira beharrezkoak diren balorazio-zuzenketak, baldin eta kategoria horren barnean hartzen den finantza-aktibo baten balioa edo antzeko arrisku-ezaugarriak dituzten batera baloratutako finantza-aktiboen talde baten balioa narriatu izanaren ebidentzia objektiboa badago, eta narriadura hori, hasierako aitormenaren ondoren, izandako gertaera baten edo gehiagoren ondorio izan bada eta gertaera horiek etorkizuneko eskudiru-fluxu zenbatetsietan murrizketa edo atzerapena eragiten badute, behar bada zordunaren kaudimen-gabeziaren ondorioz.

Finantza-aktibo horien balio-narriaduraren ondoriozko galera bi hauen arteko aldea da: batetik, liburuetan duten balioa eta, bestetik, zenbatespenen arabera sortuko dituzten etorkizuneko eskudiru-fluxuen egungo balioa -barnean direla, hala badagokio, berme errealak eta pertsonalak gauzatzearen emaitzazkoak -. Hasierako aitormenaren unean kalkulaturako interes-tasa efektiboaren arabera deskontatuko dira.



Narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketak eta horien itzulketa - baldin eta galera horren zenbatekoa ondorengo gertakizun batekin zerikusia duten arrazoiengatik murrizten bada- gastu edo diru-sarrera gisa aitortzen dira, hurrenez hurren, galdu-irabazien kontuan. Narriaduraren itzulketaren muga da itzulketa-egunean aktiboak liburuetan aitortuta duen balioa, baldin eta balioaren narriadura erregistratu ez balitz.

Finantza-aktiboen baja

Sozietateak finantza-aktiboei baja ematen die finantza-aktiboko eskudiru-fluxuen gaineko eskubideak iraungitzen direnean edo laga direnean, eta horien jabetzaren berezko arriskuak eta etekinak funtsean transferitu direnean. Kobratu beharreko kontuak sortzen dira, oro har, kaudimengabeziako eta berandutzako arriskuak transmititu badira.

Finantza-aktiboari baja ematen zaionean, transakzio-kostu egozgarrietatik jasotako kontraprestazio garbiaren eta aktiboak liburuetan duen balioaren arteko diferentziak, gehi zuzenean ondare garbian aitortutako zenbateko metatuak, zehazten dute aktibo horri baja ematean sortutako irabazia edo galera, aktibo hori gertatzen den ekitaldiko emaitzaren parte baita.

Aitzitik, Sozietateak ez die finantza-aktiboei baja ematen, eta jasotako kontraprestazioaren zenbateko bereko finantza-pasiboa aitortzen du, bere jabetzaren berezko arriskuak eta etekinak funtsean abikitzen dituzten finantza-aktiboen lagapenetan.

Eskudirua eta bestelako bitarteko likido baliokideak

Erantsitako egoera-balantzearen epigrafe honetan erregistratzen dira kutxako eta bankuetako eskudirua, ageriko gordailuak eta likidezia handiko eta hiru hilabetetik beherako epemugako epe laburrerako beste inbertsio batzuk, kutxan bizkor gauza daitezkeenak eta balioa aldatzeko arriskurik ez dutenak.

4.4.2. Finantza-pasiboak

Finantza-pasiboak, balorazioaren ondorioetarako, kategoria hauetakoren batean sailkatzen dira:

a) Kostu amortizatuko finantza-pasiboak

Kategoria honen barruan finantza-pasibo guztiak sailkatzen dira, galdu-irabazien kontuan aldaketak eragiten dituztenean eta arrazoizko balioan baloratu behar direnean izan ezik. Oro har, kategoria honetan sartzen dira merkataritza-eragiketen ondoriozko zorrak eta merkataritzakoak ez diren eragiketen ondoriozko zorrak.

Mailegu arrunt edo ohiko baten ezaugarriak dituzten partaidetza- maileguak ere kategoria horretan sartuko dira, eragiketa zero interes-tasan edo merkaturtik beherako interes-tasan adostearen kalterik gabe.

Hasiera batean, arrazoizko balioan baloratzen dira. Kontrako ebidentziarik ezean, arrazoizko balioa transakzioaren prezioa da, hau da, jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren baliokidea, zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-kostuen arabera doituta. Nolanahi ere, gehienez urtebeteko mugaeguna duten eta kontratuko interes-tasa ez duten merkataritza-eragiketen ondoriozko zorrak eta hirugarrenek partaidetzen gainean eskatutako ordainketak -horien zenbatekoa epe aburrean ordaintzea espero da- balio nominalaren arabera baloratuko dira, betiere eskudiru-fluxuak ez eguneratzearen ondorioa adierazgarria ez denean.



Aurreragoko balorazioa amortizatutako kostuan egiten da. Sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta. Dena dela, aurreko atalean xedatutakoari jarraituz, hasiera batean beren balio nominalaren arabera baloratzen diren eta urtebete baino gutxiagoko epemuga duten zorrak zenbateko horretan baloratzen jarraituko dira.

Finantza-pasiboen baja

Enpresak finantza-pasibo bati edo haren zati bati baja emango dio betebeharra iraungi denean, hau da, ordaindu, ezeztatu edo iraungi denean.

Emandako eta jasotako fidantzak

Obligazio jakin batzuen berme gisa eraturako gordailuak edo fidantzak benetan ordaindutako zenbatekoan baloratzen dira, arrazoizko baliotik nabarmen aldentzen ez den zenbatekoan.

Errentamendu operatiboen ondorioz edo zerbitzugintzen ondorioz emandako edo jasotako fidantzetan, arrazoizko balioaren eta ordaindutako zenbatekoaren arteko aldea hartzen da errentamenduagatik edo zerbitzugintzagatik aldez aurretik egindako ordainketatzat edo kobrantzatzat, eta, errentamendu-aldian edo zerbitzua egiten den aldian, galdu-irabazien kontuari egozten zaio, betiere salmenten eta zerbitzugintzen ondoriozko diru-sarrerei buruzko arauaren arabera.

Fidantzen arrazoizko balioa zenbateostean, geratzen den alditzat hartzen da hitzartutako gutxieneko kontratu-epea; aldi horretan ezin da zenbatekoa itzuli, itzulketaren portaera estatistikoa kontuan hartu gabe.

Epe laburrerako finantza denean, ez da zertan eskudiru-fluxurik deskontatu, baldin eta ondorioa adierazgarria ez bada.

4.5. Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak

Itzulgarriak diren diru-laguntzak pasibo gisa erregistratzen dira, ez-itzulgarri bihurtu arte. Bestalde, itzulgarriak ez diren diru-laguntzetarako, Sozietateak honako irizpide hauei jarraiki jarduten du:

a) Kapitaleko diru-laguntza ez-itzulgarriak

Ondare garbiari zuzenean egotzitako diru-sarrera gisa erregistratzen dira, emandako zenbatekoagatik, zerga-efektua kendu ondoren, hala badagokio. Hasierako erregistroa egiten da, ebazpenaren jakinarazpena jaso ondoren, ebazpen indibidualetan ezarritako baldintzen betetzeari buruzko arrazoizko zalantzarik ez dagoela uste den unean.

Hasierako aitopenean, Sozietateak alde batetik, aktibo gisa jasotako ondasunak edo zerbitzuak erregistratzen ditu, eta, bestetik, ondare garbiaren gehikuntza. Erregistro-datatik aurrera, kapital-laguntzak emaitzei egozten zaizkie, aldian zehar izandako balio-galeraren proportzioan, haiekin finantzaturako aktiboengatik, salbu eta balioesgarriak ez diren aktiboak direnean, eta kasu horretan, horien inbentarioan besterentzea edo baja gertatzen den ekitaldiaren emaitzari egotziko zaizkie.



b) Ustiapenerako diru-laguntzak:

Ematen diren unean emaitzetara bideratzen dira, salbu eta etorkizuneko ekitaldietako ustiapenen defizita finantzatzera bideratzen badira, kasu horretan ekitaldi horiei egotziko zaizkie. Gastu espezifikoak finantzatzeko ematen badira, egozpena finantzatzen ari diren gastuak sortzen diren neurrian egingo da.

4.6. Korrontearen eta ez-korrontearen arteko saldoen sailkapena

Erantsitako egoera-balantzean, saldoak ez-korronte eta korronte gisa sailkatu dira. Saldo korronte gisa sailkatu dira Sozietateak ustiapen-ziklo normalean saldu, kontsumitu, ordaindu edo gauzatea espero dituen saldoak. Sailkapen horrekin bat ez datozenak, berriz ez-korrontetzat hartu dira.

4.7. Mozkinen gaineko zerga

Mozkinen gaineko zergaren gastuak edo sarrerak, barne hartzen ditu zerga arruntaren gastuari edo sarrerari dagokion zatia eta zerga geroratuaren gastuari edo sarrerari dagokion zatia.

Zerga korrontea sozietateak ekitaldi bati dagokion onuraren gaineko zergaren likidazio fiskalen ondorioz ordaindutako zenbatekoa da. Zergaren kuotan izandako kenkariak eta bestelako zerga-abantailak, atxikipenak eta konturako ordainketak alde batera utzita, bai eta aurreko ekitaldietako zerga-galera konpentsagarriak eta zerga horretan benetan aplikatutakoak ere, zerga arruntaren zenbatekoa murriztea eragiten dute.

Zerga geroratuagatiko gastua edo diru-sarrera bat datoz zerga geroratuagatiko aktibo eta pasiboak aitortzearekin eta kitatzearekin. Aktiboen eta pasiboen liburuetaiko zenbatekoen eta haien balio fiskalaren arteko aldean ondorioz ordaindu edo berreskuragarriak aurreikusten diren zenbatekoak dira, hala nola, konpentsatzeko dauden zerga-oinarri negatiboak eta fiskalki aplikatu gabeko kenkari fiskalengatiko kredituak. Zenbateko horiek erregistratzen dira, berreskuratzea edo likidatzea espero deneko kargu-tasa dagokion denbora- edo kreditu-diferentziari aplikatuta.

Zerga geroratuen bidezko pasiboak aitortzen dira denborazko diferentzia guztietarako, honako salbuespenekin: merkataritza-funtsen edo beste aktibo eta pasibo batzuen hasierako aitopenetik eratorritakoak direnean, eragiketa horrek ez zerga-emaitzari ez kontabilitate-emaitzari eragiten ez dion eragiketa denean, eta ez denean ez negozio-konbinazio bat, ezta mendeko enpresetan egindako inbertsioei lotutako eragiketa bat ere, Sozietateak itzulketaren unea kontrolatu ahal izango baitu, eta litekeena da etorkizun aurreikusgarri batean ez itzultzea.

Bestalde, zerga geroratuen aktiboak sozietateak etorkizuneko zerga-irabaziak izango dituela uste den neurrian baino ez dira aitortzen, eta horien aurka gauzatu ahal izango dira.

Zerga geroratuen ondoriozko aktiboak eta pasiboak, ondare-kontuetan zuzeneko karguak edo ordainketak dituzten eragiketen ondorioz sortutakoak, ondare garbiko kontrapartidarekin ere kontabilizatzen dira.



Kontabilitate-itxiera bakoitzean, erregistratutako zerga geroratuen aktiboak berriz aztertuko dira, eta horiei zuzenketak egingo zaizkie, etorkizunean berreskuratzeko zalantzak dauden heinean. Era berean, itxiera bakoitzean balantzean erregistratu gabeko zerga geroratuen aktiboak baloratzen dira, eta horiek aitortu egiten dira, etorkizunean zerga-onurekin berreskuratu ahal izango diren heinean.

4.8. Diru-sarrerak eta gastuak

Diru-sarrerak eta gastuak sortzapenaren irizpidearen arabera egozten dira, hau da, haiek ordezkaten dituzten ondasun eta zerbitzuen benetako korrontea gertatzen denean, haien ondoriozko diru- edo finantza-korrontea noiz gertatzen den kontuan hartu gabe. Diru-sarrera horiek jasotako edo jasoko den kontraprestazioaren arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira, deskontuak eta zergak kenduta.

Salmentengatik diru-sarreren aitortzea erosiari saldutako ondasunaren jabetzari atxikitutako arrisku eta etekin esanguratsuak transferitu zaizkion unean gertatzen da, ondasun horren gaineko kudeaketa eta kontrol eraginkorrari eutsi gabe.

Zerbitzuak emateagatik diru-sarrerak ekitaldiko prestazioaren gauzatze-maila kontuan hartuta aitortzen dira, baldin eta transakzioaren emaitza fidagarritasunez zenbatetsi badaiteke. Kalkulu hori bezeroekin formalizatutako kontratuetan ezarritako diru-sarrerak kontuan hartuta egiten da, eta proiekturako aurreikusitako/aurrekontuko gastu guztien aitortpen-egunean izandako gastuen arabera kalkulaturako ehunekoa aplikatzen zaie.

Finantza-aktiboetatik jasotako interesak interes-tasa efektiboaren eta dibidenduen metodoa erabiliz aitortzen dira, akziodunak horiek jasotzeko duen eskubidea aitortzen denean. Nolanahi ere, eskuratze unearen ondoren sortutako finantza-aktiboaren interesak eta dibidenduak galdu-irabazien kontuko diru-sarrera gisa aitortzen dira.

Aldez aurretik salmenta edo zerbitzuak emateagatik diru-sarrera gisa aitortutako zenbateko bat kobratzeari buruzko zalantzak daudenean, kobratzea gerta ezina dela uste den zenbatekoa narriaduragatik balioa zuzentzeagatik gastu gisa erregistratuko da, eta ez diru-sarrera txikiago moduan.

Gastuak galdu-irabazien kontuan aitortzen dira, baldin eta aktibo baten murrizketarekin edo pasibo baten gehikuntzarekin lotutako etorkizuneko onura ekonomikoak murrizten bada, eta modu fidagarrian neur badaitezke. Horrek esan nahi du gastu baten erregistroa pasiboaren gehikuntzaren erregistroarekin edo aktiboaren murrizketarekin batera gertatzen dela.

Gastu bat berehala aitortzen da, ordainketa batek etorkizuneko onura ekonomikorik sortzen ez duenean edo aktibo gisa erregistratzeko beharrezko baldintzak betetzen ez ditenean. Era berean, gastu bat aitortzen da pasibo bati dagokionean eta aktiborik erregistratzen ez denean.



4.9. Hornidurak eta kontingentziak

Sozietatearen Administrazioaileek, urteko kontuen eraketan, ezberdintasunak:

- Hornidurak: iraganeko gertakarien ondoriozko egungo betebeharrak betetzen dituzten saldo hartzekodunak, baliabide-irteera bat eragin dezaketenak, baina zenbatekoari eta/ edo ezeztatzeko uneari dagokionez zehaztu gabe daudenak.
- Pasibo kontingenteak: iraganeko gertakarien ondorioz sor daitezkeen betebeharrak, baldin eta horien etorkizuneko gauzatzea Sozietatearen borondateatik independentea den etorkizuneko gertaera bat edo gehiago gertatzearen menpe dagoenean.

Urteko kontuek obligazioari erantzuteko probabilitatea kontrakoa baino handiagoa dela kalkulatu den hornidura guztiak jasotzen dituzte. Pasibo kontingenteak ez dira urteko kontuetan aitortzen, baizik eta horiei buruzko informazioa ematen da memoriaren oharretan, urrunekotzat hartzen ez diren neurrian.

Hornidurak betebeharra kitatzeko edo transferitzeko behar den zenbatekoaren ahalik eta estimaziorik onenaren egungo balioaren arabera baloratzen dira, gertakariari eta haren ondorioei buruz eskuragarri dagoen informazioa kontuan hartuta, eta hornidura horiek eguneratzearen ondorioz sortzen diren doikuntzak finantza-gastu gisa erregistratuz joaten dira, sortzen diren heinean.

Obligazioa kitatzeko unean hirugarren batengandik jaso beharreko konpentsazioa aktibo gisa erregistratuko da, baldin eta zalantzarik ez badago itzulketa hori jasoko dela, arriskuaren zati bat kanporatzen duen legezko lotura bat ez badago, eta lotura horren arabera sozietateak ez badu erantzun beharrik; egoera horretan, konpentsazioa kontuan hartuko da dagokion hornidura agertzeko zenbatekoa zenbatesteko, hala badagokio.

4.10. Erlazionatutako enpresen arteko eragiketak

Oro har, erlazionatutako enpresen arteko eragiketak arrazoizko balioan erregistratzen dira hasieran. Hala badagokio, hitzartutako prezioa arrazoizko baliotik desberdina bada, aldea eragiketaren errealitate ekonomikoaren arabera erregistratzen da. Ondorengo balorazioa dagokion araudian xedatutakoaren arabera egiten da.

4.11. Ingurumenean eragina duten enpresa-jardunak

Ibilgetuko inbertsioztat hartuko dira sozietatearen jarduera arruntak ingurumenean sortzen dituen eraginak ezabatu, mugatu edo kontrolatzera bideratutako sistema, ekipo eta instalazioak erosteko izandako gastuak. Ingurumenarekin zerikusia duten gainerako gastuak, ibilgetu-elementuak eskuratzeko egin ez direnak, ekitaldiko gastutzat hartuko dira.

Ingurumenari loturik izan litezkeen kontingentziei dagokienez, harpidetutako polizen bidez kontingentzia horiek behar adina estalita daudela irizten zaio.

**5. OHARRA.- IBILGETU MATERIALA**

2024ko eta 2023eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldietan honako mugimendu hauek erregistratu dira ibilgetu honetako kontuetan:

DESKRIBAPENA	31/12/2022	Gehikuntzak	31/12/2023	Gehikuntzak	Beherakadak	31/12/2024
Ibilgetu materiala						
Eraikinak	70.022,94		70.022,94			70.022,94
Bestelako instalazioak	45.667,46		45.667,46			45.667,46
Altzariak	12.841,46		12.841,46			12.841,46
Informazio prozesuen ekipamenduak	14.882,02		14.882,02			14.882,02
Aribideko ibilgetu eta aurrerakinak	44.900,00	47.552,41	92.452,41	34.749,84		127.202,25
Guztira	188.313,88	47.552,41	235.866,29	34.749,84	0,00	270.616,13
Amortizazio metatua						
Eraikinak	55.130,55	214,14	55.344,69	210,20		55.554,89
Bestelako instalazioak	48.700,46		48.700,46		(3.033,00)	45.667,46
Altzariak	13.093,38		13.093,38		(251,92)	12.841,46
Informazio prozesuen ekipamenduak	14.882,02		14.882,02			14.882,02
Guztira	131.806,41	214,14	132.020,55	210,20	(3.284,92)	128.945,83
Ibilgetu Material Garbia	56.507,47		103.845,74			141.670,30

Aurreko koadroan jasotzen diren elementuak zati batean diru-laguntzen bidez finantzatu dira (14. oharra).

Aribideko ibilgetuen atalean islatutako saldoa miniestadioko obraren birmoldaketari lotutako lanei dagokie. Obra horretarako aurreikusitako aurrekontua 3.380.100,21 eurokoa izango da (BEZ barne), eta 2026ko erdialdean amaitzea aurreikusten da.

Ekitaldia ixtean, sozietateak ibilgetu materialeko elementuak erabat amortizatuta zituen, eta oraindik ere erabiltzen ziren, xehetasun hauen arabera:

	Liburuaren balioa	
	2024	2023
Bestelako instalazioak	45.667,46	45.667,46
Altzariak	12.841,46	12.841,46
Informazio prozesuen ekipamenduak	14.882,02	14.882,02
Guztira	73.390,94	73.390,94

Ibilgetuak ez du inolako bermerik edo titulartasun-murrizketarik.

6. OHARRA.- ONDASUN HIGIEZINETAKO INBERTSIOAK

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldietan honako mugimendu hauek erregistratu dira ibilgetu honetako kontuetan:

DESKRIBAPENA	31/12/2022	Gehikuntzak	31/12/2023	Gehikuntzak	31/12/2024
Ondare higiezinetao inbertsioak					
Lursailak eta eraikinak	97.853.601,31		97.853.601,31		97.853.601,31
Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala	125.609,00		125.609,00		125.609,00
Guztira	97.979.210,31	0,00	97.979.210,31	0,00	97.979.210,31
Eraikinak	27.194.490,32	1.629.801,29	28.824.291,61	1.627.792,57	30.452.084,18
Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala	125.609,00		125.609,00		125.609,00
Amortizazio Metatua	27.320.099,32	1.629.801,29	28.949.900,61	1.627.792,57	30.577.693,18
Guztira	27.320.099,32	1.629.801,29	28.949.900,61	1.627.792,57	30.577.693,18
Ondasun higiezinetao inbertsioak garbia	70.659.110,99		69.029.309,70		67.401.517,13



Aurreko koadroan jasotako elementuak partzialki finantzatu dira Donostiako Udalaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzez (14. oharra).

Sozietateak ibilgetu higiezinak ditu, eta 2024ko eta 2023ko ekitaldien itxieran eraikuntzen eta lur eta ondasun naturalen balioa honako hau izan da (euroak):

Higiezinak	2024	2023
Lursailak	675.314,72	675.314,72
Eraikinak	97.178.286,59	97.178.286,59
Guztira	97.853.601,31	97.853.601,31

Epigrafe honetan 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n guztiz amortizatutako elementuen zenbatekoa 125.609,00 eurokoa da, eta "Instalazio teknikoan eta beste ibilgetu material baten" kontuan bilduta daude.

7. OHARRA.- ERRENTAMENDUAK ETA ANTZEKO BESTE ERAGIKETA BATZUK

Sozietateak errentatzaile gisa jarduten duen errentamendu operatiboak ditu. 2024ko ekitaldian 2.291.733,02 euroko diru-sarrerak jaso ditu instalazioen erabilera lagatzeagatik (2.456.016,52 euro 2023an). Alokairu operatiboko ondasun esanguratsuenak Anoetako Estadioa eta Anoetako kirol-taldean kokatutako hainbat instalazio dira. Ikusi 11. oharra.

8. OHARRA.- FINANTZA-TRESNAK

8.1. Finantza-aktiboak:

8.1.1. 2024ko eta 2023ko ekitaldiaren itxieran dauden finantza-aktiboen xehetasunak, administrazio publikoekiko eta diruzaintzako saldoak kontuan hartu gabe, honako hauek dira, bai epe luzera, bai epe laburrera:

Motak Kategoriak	Epe luzeko finantza-tresnak		Epe laburreko finantza-tresnak		Guztira	
	Ondare tresnak		Kredituak Deribatuak Bestelakoak			
	2024	2023	2024	2023	2024	2023
Kostu amortizatuko finantza-aktiboak	3.300.000,00	3.300.000,00	1.079.070,91	3.820.437,98	4.379.070,91	7.120.437,98
GUZTIRA	3.300.000,00	3.300.000,00	1.079.070,91	3.820.437,98	4.379.070,91	7.120.437,98

✓ Luzerako finantza-inbertsioak:

Epigrafe honen saldoa bat dator Eusko Jaurlaritzak Anoeta estadioa eta ondoko miniestadioa birmoldatzeko lanak finantzatzeko egin behar duen azken ekarpenarekin, erakunde horrekin 2016ko azaroaren 15ean sinatutako hitzarmenaren arabera. Sozietateak uste du hitzarmen horretan hitzartutako betebeharrak guztiak ez direla 2026ko erdialdea baino lehen beteko; beraz, saldo hori honekin batera doan balantze aktibo ez-korrontean erregistratu du.



✓ Merkataritza-zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk:

Batez ere merkataritza-trafikoaren ondorioz sortutako saldoei dagokie, eta balorazio-arauetan azaldutakoaren arabera baloratzen dira (ikus 4. oharra), kostu amortizatuaren arabera. Zenbateko nagusia Real Sociedad, S.A.D.-rekin egindako eragiketetatik dator, erakunde horrekin formalizatutako hitzarmenean ezarritakoaren arabera urtean 150.000,00 euroko ekarpenaren (gehi BEZ) eta lagatako elementuen gastuen eraginaren ondorioz. 2024ko itxieran kobratzeke dagoen zenbatekoa 1.062.654,95 eurokoa da (3.817.157,60 euro 2023ko ekitaldian). Urteko kontu hauen eraketa unean, itxiera ondorengo ordainketak kontuan hartuta, 758 mila euro inguru kobratzeko daude. Urteko ekarpenen kobrantzan nolabaiteko atzerapena gertatzen ari bada ere, saldo hori murriztuz joan dela ikusten da, eta Sozietatea SAD-ekin hitz egiten ari da, ordaintzeko dauden zenbatekoak likidatzeko moduari buruzko akordio bat lortzeko.

8.1.2. Balioaren narriaduragatiko zuzenketak: kreditu-arriskuak eragindako narriaduragaleren adierazgarri diren kontu zuzentzaileen mugimendua honako hau da:

Motak	31/12/2022	Gehikuntzak	31/12/2023	Gehikuntzak	31/12/2024
Merkataritza-kredituen narriadura	33.019,36	63,75	33.019,36	0,00	33.019,36
GUZTIRA	33.019,36	63,75	33.019,36	0,00	33.019,36

8.2. Finantza-pasiboak:

8.2.1. 2024ko eta 2023ko ekitaldiaren itxieran dauden finantza-pasiboen xehetasunak; administrazio publikoekiko saldoak kontuan hartu gabe, bai epe luzera bai epe laburrera, honako hauek dira:

Motak / Kategoriak	Epe luzeko finantza-tresnak		Epe laburreko finantza-tresnak		Guztira	
	Deribatuak Bestelakoak		Deribatuak Bestelakoak			
	2024	2023	2024	2023	2024	2023
Kostu-amortizatuko finantza-pasiboak	6.603.598,27	6.604.093,27	218.107,40	151.317,86	6.821.705,67	6.755.411,13
GUZTIRA	6.603.598,27	6.604.093,27	218.107,40	151.317,86	6.821.705,67	6.755.411,13

Epe luzean, 2019an Donostiako Udalarekin emandako zor bat agertzen da, Eusko Jaurlaritzaren kobratzeko dagoen diru-laguntza (ikusi 17. oharra), eta Real Sociedad, S.A.D.-engatik (ikusi 8.1. oharra) sozietateak kobratu beharreko zenbait saldo kobratzeko atzerapenak eragindako likidezia-faltak arintzeko.



8.3. Finantza-tresnen izaerari eta arrisku-mailari buruzko informazioa

Honako hauek dira Sozietateak garatutako jarduerak eragin ditzakeen edo ez ditzakeen arriskuak, finantza-tresnei lotutakoak:

a. Kreditu-arriskua

Oro har, Sozietateak bere diruzaintza eta aktibo likido baliokideei eusten die kreditu-maila handiko finantza-erakundeetan.

Bestalde, adierazi behar da, bezero bat izan ezik (Real Sociedad de Futbol), zeinarekin eragiketa kopuru esanguratsua mantentzen den, ez dagoela hirugarrenetikiko kreditu-arriskuaren kontzentrazio esanguratsurik.

b. Likidezia-arriskua:

Likidezia ziurtatzeko eta bere jardueratik eratorritako ordainketa-konpromiso guztiei erantzun ahal izateko, Sozietateak bere balantzea erakusten duen diruzaintza eta finantza-inbertsioak ditu.

Merkatu-tasaren arriskua (interes-tasa, kanbio-tasa eta beste prezio-arrisku batzuk barne):

Sozietateak ez du finantza-zorrik, eta ez du atzerriko moneta unitateekin eragiketarik egiten, eta, beraz, interes-tasei eta kanbio-tasei lotutako arriskua nulua da. Dauden zor bakarrak taldeko erakundeekin dira. Ikusi 17. oharra.

9. OHARRA.- FUNTS PROPIOAK

2024ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldian honako mugimendu hauek erregistratu dira erantsitako balantzearen epigrafe honetan:

9.1. Kapital soziala

2024ko abenduaren 31n, Anoeta Kiroldgia - Ciudad Deportiva de Anoeta, SA sozietatearen kapital soziala 83.805 akzio izendunei dagokie, eta horietako bakoitzak 60,10 euroko balio izenduna du. Kapital sozial hori guztiz harpidetuta eta ordainduta dago. Donostiako Udala da kapital sozialaren % 100aren jabea.

9.2. Legezko erreserba

Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bateginaren arabera, ekitaldiko etekinaren % 10a legezko erreserbetara bideratu behar da, harik eta kapital sozialaren %20ra iritsi arte, gutxienez. Legezko erreserba kapital zabalkuntzarako erabili ahal izango da, iada handitutako kapitalaren %10 baino handiagoa den saldoaren zatian. Lehen aipatutako helbururako izan ezik, eta kapital sozialaren % 20 gaingaitzen ez duen bitartean, erreserba hori galerak estaltzeko baino ezin izango da erabili, baldin eta helburu horretarako beste erreserba nahikorik ez badago.

2024ko eta 2023ko ekitaldi itxieretan erreserba hau ez dago guztiz eratuta.



9.3. Balio-handitze erreserba

Erreserba hauek ibilgetu materialaren eta ondasun higiezinetakoko inbertsioen balioa eguneratzeko eragiketaren -horri buruzko araudiari jarraiki eginak- ondorio dira.

*11/1996 Foru Araudiaren eguneraketa

Eguneratzeko eragiketak Ogasun Ikuskaritzak 2001eko abenduaren 31z gerostik isilbidez onartutakotzat ematen dira.

Saldoa kontabilitate-emaizta negatiboak ezabatzeraz, kapital soziala gehitzera edo erreserba ez-banagarrietara bideratu ahal izango da.

9.4. Beste zenbait erreserba

Erreserba horiek 67 euroko zenbatekoa dute, eta kapitala eurora doitzeagatik aldeei esleitutakoak biltzen dituzte.

10 OHARRA.- EGOERA FISKALA

10.1. Administrazio publikoekin duen saldoaren osaketa honako hau da:

Kontzeptua	Zordunaren Saldoak	
	2024	2023
Ogasun Publikoak BEZ -gatik	50.346,72	54.901,43
Ogasun Publikoa MGZ-gatik	0,00	22.655,15
Guztira	50.346,72	77.556,58

10.2. Honako hau da sozietateen gaineko zergaren kontabilitate-emaiztaren eta zerga-oinarriaren arteko bateratzea:

Kontzeptua	2024	2023 (*)
Kontabilitate-emaizta zergen aurretik	4.412,58	314.633,24
Alde iraunkorrak	(900.790,50)	3.000,00
Negatiboak - erreserben doikuntzak (2.7 oharra)	(900.790,50)	0,00
Aurreko ekitaldietako zerga-oinarri negatiboaren konpentsazioa	0,00	(158.816,62)
Zerga-oinarria	(896.377,92)	158.816,62
Zerga mota	24%	24%
Kuota osoa	0,00	38.115,99
Dedukzioak		
Mugarekin	0,00	(15.460,84)
Kuota likidoa	0,00	22.655,15
Ordaindu/itzuli beharreko kuota	0,00	22.655,15

(*) 2023 zatubeko datuak bat datozen 2023ko ekitaldiko sozietateen gaineko zergaren likidazioarekin 2023ko ekitaldiko urteko kontuetan sartutako informazioarekin.



10.3. Honako hau da mozkinen gaineko zergagatiko gastuaren eta ekitaldiko kontabilitate-emaizaren arteko bateratzea:

Kontzeptua	2024	2023
Kontabilitate-emaizta zergen aurretik	4.412,58	314.633,24
Diferentzia iraunkorren eragina	(900.790,50)	0,00
Aurreko ekitaldietako zerga-oinarri negatiboen konpentsazioa	0,00	(157.316,62)
Zerga mota	24%	24%
Kuota osoa	0,00	37.755,99
Dedukzioak		
Mugarekin	0,00	(15.875,16)
Sozietateen gaineko Zergaren gastua	0,00	21.880,83

10.4. Hona hemen estaltzeko dauden zerga-oinarri negatiboen eta 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n aplikatzeko dauden dedukzioen xehetasunak:

2024ko ekitaldia:

Kontzeptua	Sortutako zenbatekoa	Aurreko ekitaldietan aplikatua	Uneko ekitaldian aplikatua	Aplikatzeko zain	Epemuga
Zerga oinarri negatiboak:					
2005ean sortutako zerga-oinarri negatiboa	200.787,71	62.675,80		138.111,91	2035
2006an sortutako zerga-oinarri negatiboa	246.565,32			246.565,32	2036
2007an sortutako zerga-oinarri negatiboa	336.100,24			336.100,24	2037
2008an sortutako zerga-oinarri negatiboa	204.551,72			204.551,72	2038
2009an sortutako zerga-oinarri negatiboa	121.102,00			121.102,00	2039
2010ean sortutako zerga-oinarri negatiboa	90.773,00			90.773,00	2040
2011n sortutako zerga-oinarri negatiboa	116.215,00			116.215,00	2041
2012an sortutako zerga-oinarri negatiboa	111.230,15			111.230,15	2042
2013an sortutako zerga-oinarri negatiboa	104.111,57			104.111,57	2043
2014an sortutako zerga-oinarri negatiboa	25.789,92			25.789,92	2044
2016an sortutako zerga-oinarri negatiboa	18.870,46			18.870,46	2046
2017an sortutako zerga-oinarri negatiboa	593.446,94			593.446,94	2047
2018an sortutako zerga-oinarri negatiboa	1.076.993,40			1.076.993,40	2048
2019an sortutako zerga-oinarri negatiboa	423.179,00			423.179,00	2049
2020an sortutako zerga-oinarri negatiboa	283.913,45			283.913,45	2050
2021ean sortutako zerga-oinarri negatiboa	128.493,31			128.493,31	2051
2024an sortutako zerga-oinarri negatiboa	896.377,92			896.377,92	2054
Zerga-oinarri negatiboak guztira	4.978.501,11	62.675,80	0,00	4.915.825,31	
Dedukzioak aplikatzeko zain					
2020ko ekitaldia	2.648.187,65	13.479,60		2.634.708,05	2050
Aplikatu beharreko dedukzioak guztira	2.648.187,65	13.479,60	0,00	2.634.708,05	

2023ko ekitaldia:

Kontzeptua	Sortutako zenbatekoa	Aurreko ekitaldietan	Uneko ekitaldian	Aplikatzeko zain	Epemuga
Zerga oinarri negatiboak:					
2003an sortutako zerga-oinarri negatiboa	44.026,28	33.569,16	10.457,12	0,00	2033
2004an sortutako zerga-oinarri negatiboa	85.683,70		85.683,70	0,00	2034
2005ean sortutako zerga-oinarri negatiboa	200.787,71		62.675,80	138.111,91	2035
2006an sortutako zerga-oinarri negatiboa	246.565,32			246.565,32	2036
2007an sortutako zerga-oinarri negatiboa	336.100,24			336.100,24	2037
2008an sortutako zerga-oinarri negatiboa	204.551,72			204.551,72	2038
2009an sortutako zerga-oinarri negatiboa	121.102,00			121.102,00	2039
2010ean sortutako zerga-oinarri negatiboa	90.773,00			90.773,00	2040
2011n sortutako zerga-oinarri negatiboa	116.215,00			116.215,00	2041
2012an sortutako zerga-oinarri negatiboa	111.230,15			111.230,15	2042
2013an sortutako zerga-oinarri negatiboa	104.111,57			104.111,57	2043
2014an sortutako zerga-oinarri negatiboa	25.789,92			25.789,92	2044
2016an sortutako zerga-oinarri negatiboa	18.870,46			18.870,46	2046
2017an sortutako zerga-oinarri negatiboa	593.446,94			593.446,94	2047
2018an sortutako zerga-oinarri negatiboa	1.076.993,40			1.076.993,40	2048
2019an sortutako zerga-oinarri negatiboa	423.179,00			423.179,00	2049
2020an sortutako zerga-oinarri negatiboa	283.913,45			283.913,45	2050
2021ean sortutako zerga-oinarri negatiboa	128.493,31			128.493,31	2051
Zerga-oinarri negatiboak guztira	4.211.833,17	33.569,16	158.816,62	4.019.447,39	
Dedukzioak aplikatzeko zain					
2005eko ekitaldia	2.091,52	1.485,83	605,69	0,00	2035
2006ko ekitaldia	1.514,55		1.514,55	0,00	2036
2020ko ekitaldia	2.648.187,65	139,00	13.340,60	2.634.708,05	2050
Aplikatu beharreko dedukzioak guztira	2.651.793,72	139,00	13.340,60	2.634.708,05	



Zuhurtasunagatik, Sozietateak ez du erregistratu erantsitako balantzean zerga-oinarri negatiboen eta aplikatzeko dauden beste zerga-kreditu batzuen gaineko zerga geroratuagatik aktiboa.

- 10.5.** Indarrean dauden legezko-xedapenen arabera, zerga-likidazioak ezin dira behin betikotzat jo agintaritza fiskalak ikuskatzen ez dituen arte arte edo lau urteko preskripzio-epea igaro arte.

Sozietateak egungo ekitaldiko zerga guztiak ikuskatu gabe ditu. Administratzaileen iritziz, ez dago zenbateko esanguratsurik ikuskapenerako irekita dauden urteak berrikustearen ondorioz kontigentziak sor ditzakeenik.

2024ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zerga likidatzeko aplikatu beharreko legeria ekitaldia ixtean indarrean dagoen urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauari dagokiona da.

Sozietatearen administratzaileek zerga honekin lotutako zenbatekoen kalkuluak egin dituzte 2024ko ekitaldirako eta ekitaldi bakoitzaren itxieran indarrean dagoen foru araudiaren arabera ikuskatzeko irekita dauden urteetarako.

Hala ere, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren preskripzioari dagokionez, zenbateko hori berriro zenbatzen hasi zen 2020ko maiatzaren 8an 2015, 2016, 2017, 2018 eta 2019 ekitaldietarako, Sozietateak ekitaldi horien gainean Gipuzkoako Foru Ogasunean aurkeztutako erregularizazioa dela eta, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 7 8. artikuluan izandako aldaketan ondorioz.

Sozietateen gaineko Zergari dagokionez, haren zenbaketa berriro hasi zen 2020ko uztailaren 24an, 2015, 2016, 2017 eta 2018ko ekitaldietarako, Sozietateak ekitaldi horien gainean Gipuzkoako Foru Ogasunean aurkeztutako erregularizazioa dela eta; izan ere, zerbitzu publikoak ematek eratorritako errentak ez integratzeari buruzko interpretazio-irizpidea aldatu zen, 2/2014 Foru Arauaren 39.1 artikuluan aurreikusia.

- 10.6. Beste zerga batzuk:** 2024ko eta 2023ko ekitaldietan 97.278,90 euro eta 53.357,74 euro erregistratu dira, hurrenez hurren, ondasun higiezinaren gaineko zergari eta jarduera ekonomikoen gaineko zergari dagozkienak.

11 OHARRA.- DIRU-SARRERAK ETA GASTUAK

11.1. Jarduera arrunten diru-sarreraren banakatzea:

Honako hauek dira epigrafe honen araberrako xehetasunak:

Kontzeptua	2024	2023
Errentamenduen diru-sarrerak	1.410.606,88	1.386.893,59
Telefonia errepikagailuak	29.599,20	28.183,00
Gastuen ondorioak	851.526,94	1.040.939,93
GUZTIRA	2.291.733,02	2.456.016,52



Indarrean dauden lagapen-akordio nagusiak honako hauek dira:

- Lankidetzeta-hitzarmena, 2006an Kiroletako Udal Patronatuarekin sinatua (17. oharra ikusi), kirol-erabilerako hainbat instalazio ustiatzeko. Hitzarmenaren iraupena 5 urtekoa da, eta tazituki luza daiteke urtebetero, gehienez 25 urteko iraupena izango du. Kontratuaren urteko igoeren erreferentzia, KPIaren arabera da. Kontzeptu horrengatik 217.022,06 eurokoa da (209.346,51 euro 2023ko ekitaldian) erregistratutako zenbatekoa.
- Estadioaren eta bulegoen erabilera "Real Sociedad"-ri lagatzea: kontzeptu horrengatik egungo ekitaldian islatutako diru-sarrera 1.024.714,29 eurokoa da (aurreko ekitaldian zenbateko bera). Ikusi 13. oharra.
- Gipuzkoako Kirol Federazioek Gipuzkoako Foru Aldundiaren alde okupaturako instalazioak 1993an formalizatutako lankidetzeta-hitzarmenaren arabera lagapena, 1.734.763,62 euroko zenbatekoarekin 40 urterako: kontzeptu horrengatik urtero islatzen den diru-sarrera 43.369,09 eurokoa da (2023an zenbateko bera). 2018an formalizatutako hitzarmenaren ondorioz, BFAk 4 milioi ematen dizkio erakundeari estadioko eta miniestadioko lanak finantzatzeko, eta instalazio horien lagapenaren iraupena 50 urteko epean luzatu da, kanonik edo kontraprestazio gehigarriak sortu gabe.
- Lankidetzeta-hitzarmena, 2020an Donostia Kulturarekin sinatua (ikusi 17. oharra), Anoetako estadioko erakusketa-zatian "Casa Cultura" lokalak erabiltzeko. Hitzarmenaren iraupena 40 urtekoa da. Kontzeptu horrengatik erregistratutako zenbatekoa 42.983,61 eurokoa da (2023an zenbateko bera).
- Lankidetzeta-hitzarmena, 2017an Gipuzkoako Futbbl Federazioarekin sinatua, Anoeta estadioan bulegoetarako espazioa erabiltzeko. Hitzarmenaren iraupena 25 urtekoa da, eta 3 urtez luzatu ahal izango da, gehienez ere 50 urtez. Kontratuaren urteko igoerak, KPIaren arabera egingo dira. Kontzeptu horrengatik erregistratutako zenbatekoa 39.496,68 eurokoa da (38.467,11 euro 2023ko ekitaldian).

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n, Sozietateak honako kuota hauek ditu kontratatuta errentariekin, orain indarrean dauden kontratuen arabera eta gastu arrunten jasanarazpenik, KPIren ondoriozko gehikuntzarik eta kontratu bidez hitzartutako errenten etorkizuneko eguneratzerik kontuan izan gabe:

Errentamendu operatiboaren gutxienezko kuota	2024	2023
Urtebete baino gutxiago	309.006,35	300.301,23
1 eta 5 urte bitartekoak	367.937,16	363.818,88
5 urte baino gehiago	1.100.324,55	1.177.894,86
GUZTIRA	1.777.268,06	1.842.014,97

Aurreko koadroan ez dira sartzen kobrantza aurreratua duten erabilera-lagapenetatik eratorritako diru-sarrerak (ikusi 13. oharra).

- 11.2. Beste emaitza batzuk:** Epigrafe honetan 2023ko ekitaldiaren amaieran erregistratutako zenbatekoa, batez ere, ibilgetuaren kalteengatik aseguruak kobratzeagatik aparteko diru-sarrerari zegokien.



12. OHARRA. HORNIDURAK ETA KONTINGENTZIAK

Elkartearen aurkako demanda jarri zuten honako hauek: "Anoeta Zelaia Obra Zibila Enpresen Aldi Baterako Batasuna Maiatzaren 26ko 18/1982 Legea", "Anoeta Zelaia Ingurutzaila Enpresen Aldi Baterako Batasuna Maiatzaren 26ko 18/1982 Legea" eta "Anoeta Erreforma Lokalak Enpresen Aldi Baterako Batasuna Maiatzaren 26ko 18/1982 Legea" eta hauen bazkideek, "CONSTRUCCIONES MOYUA, S.L.", "ALTUNA Y URIA, S.A.", 389.806,50 euro-ko printzipalaren ordainketa eta 2021eko irailaren 22ra arte sortutako 42.047,92 euro-ko berandutze-interesen ordainketa erreklamatzeko, eta ordaindu arte sorfaraz daitezkeenak ordaintzeko.

Printzipalaren jatorria honako hauek izango liriteke: Sozietateak lan-arloko demandatzaileei ezarritako zigorrak (61.945 euro) eta Ernest Lluch Kultur Etxean eman behar ziren kultura-tailerrak birkokatzeak eragindako gastuak (21.117 euro), eta Kirol Etxean gertatutako ezbeharrak eragindako gastuengatik eskatzaileei egindako behin-behineko atxikipena (306.744 euro).

Auzia izapidetzen ari den bitartean, aseguru-etxeak 141.881,13 euro ordaindu zizkion Anoeta Kirolegiari, eragindako kalte- ordain gisa. Zenbateko hori, Anoeta Kirolegiak salatzaileei eman zien, eta, auziaren emaitza edozein dela ere, sozietatea aske geratu da zenbateko horretan, zeina salatzaileen aldetik eskatzen den.

2024ko martxoaren 7an egin zen epaiketa, eta 2024ko martxoaren 11n jakinarazi zen salaketa atzera botatzen zela eta Sozietatea salaketa guztietatik libre geratzen zela. Hala ere, salatzaileak apelazio-errekurtsoa jarri zuen, eta Helegitearen aurka agertu zen, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak urteko kontuak aurkeztu ziren egunean ebatzi gabe egonik.

13 OHARRA.- EPE LUZEKO ETA EPE LABURREKO ALDIZKAPENAK

Balantzeko pasibo ez-korrante eta korranteko epigrafe hauetan, 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n, Sozietatearen eraikuntzen erabilaren lagapenen onuradunek jasotako kontrapartiden emaitzei egotzi beharreko saldoak sartzen dira.

2024ko eta 2023ko ekitaldiei dagozkien mugimenduen xehetasunak honako hau dira:

Deskribapena	31/12/2022	Erretiroak	Itsuldaketak	31/12/2023	Erretiroak	Itsuldaketak	31/12/2024
Epe luzeko aldizkapenak							
Real Sociedad - Estadioa/Bulegoak	51.235.714,50		(1.024.714,29)	50.211.000,21	0,00	(1.024.714,29)	49.186.285,92
Gipuzkoako Foru Aldundia	461.333,01		(43.369,09)	417.963,92	0,00	(43.369,09)	374.594,78
Epe luzeko guztira	51.697.047,51	0,00	(1.068.083,38)	50.628.964,13	0,00	(1.068.083,38)	49.560.880,70

Deskribapena	31/12/2022	Erretiroak	Itsuldaketak	31/12/2023	Erretiroak	Itsuldaketak	31/12/2024
Epe laburreko aldizkapenak							
Real Sociedad - Estadioa/Bulegoak	1.024.714,29	(1.024.714,29)	1.024.714,29	1.024.714,29	(1.024.714,29)	1.024.714,29	1.024.714,29
Gipuzkoako Foru Aldundia	43.369,09	(43.369,09)	43.369,09	43.369,09	(43.369,09)	43.369,09	43.369,09
Epe laburrera guztira	1.068.083,38	(1.068.083,38)	1.068.083,38	1.068.083,38	(1.068.083,38)	1.068.083,38	1.068.083,38

Hauek dira onuradunen zerrenda, ukitutako instalazioak eta aipatutako erabilera lagapenengatik 1993an 40 urtez ordaindutako zenbatekoak:

- Real Sociedad de Fútbol, S.A.D.: 3.005.060,52 euro Anoetako estadioa lagatzeagatik eta 150.253,03 euro bulegoak lagatzeagatik.
- Gipuzkoako Foru Aldundia: 1.734.763,62 euro Gipuzkoako Kirol Federakuntzek erabiltzen dituzten instalazioak lagatzeagatik.



Horrez gain, Real Sociedad de Fútbol, S.A.D.-ek ekarpen berriak egin zituen 2016ko irailaren 1eko hitzarmenaren inguruan, Sozietateak erakunde horrekin sinatutako Anoetako estadioa birmoldatzeko. Aipatutako hitzarmenaren bigarren akordioaren arabera, Real Sociedad de Fútbol, S.A.D.-ek birmoldaketan kostuaren %50a eman behar zuen. Kontzeptu horretako ekarpenak Miniestadioaren birmoldaketari zegokionez 2.848.945 euroko % 50era mugatzen ziren, eta kostu hori oinarritzko proiektuan zenbatetsi da. Era berean, estipulazio horren arabera, Real Sociedad de Fútbol, S.A.D.k estadioa eta miniestadioa birmoldatzeko obren behin betiko kostu osoa osatu arte gainerako zenbatekoa jarriko zuen, Eusko Jaurizaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekarpenak kenduta, Kirol Etxea, Kultur Etxea eta Gipuzkoako Futbol Federazioarentzako zenbatekoak kendu ondoren.

Estadioari egindako ekarpenak 50.469.242,00 eurokoak izan ziren 2021eko abenduaren 31n, eta Anoeta estadioa erabili eta ustiatzeko lankidetzak-hitzarmenaren indarraldia luzatzearen ondoriozko kanonizatzen hartu dira. Hitzarmen hori 2033ko abuztuaren 5ean amaitzen zen, eta hasiera batean 2074ko otsailaren 5era arteko epe berria ezarri zen; hala ere, ezarritako kanonaren arabera doitu beharko da (702.677,68 euro), baldin eta sozietateak beste betebeharrak batzuk baditu estadioa birmoldatzeko obren ondorioz.

Erretiroak ekitaldiko emaitzaren egozpenak dira, eta 2024ko abenduaren 31n amaitutako eta erantsitako 2023ko ekitaldietako galdu-irabazien kontuetako "Negozio-zifraren zenbateko garbia" epigrafeetan islatzen dira.

14 OHARRA.- DIRU-LAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA JASOTAKO LEGATUAK

Atxikitako 2024ko abenduaren 31ko egoera-balantzeko ondare garbiko epigrafean bildutako saldoa honela lortu da: hainbat erakunde publikok ekitaldi honetan eta aurrekoetan emandako kapitaleko diru laguntza guztien eta, diru laguntza horiekin finantzaturako inbertsio-ondasunei egindako amortizazioen arabera, dagokien galdu-irabazien kontuetara transferitutako zenbatekoen guztizkoaren arteko kendura ginez.

Erantsitako 2024ko eta 2023ko abenduaren 31ko egoera-balantzeen epigrafe honetan erregistratutako mugimenduak honako hauek dira:

Erakundea	Kontzeptua	2023ko diru-sarrerak	Diru-sarreretan jasotzeke 31.12.23	2024ko diru-sarrerak	Diru-sarreretan jasotzeke 31.12.24
Donostiako Udala	Anoetako kirol instalazioak	9.957,15	173.458,01	9.957,15	163.500,86
Eusko Jaurizaritza	Anoetako kirol instalazioak	3.532,27	182.763,84	3.448,37	179.315,47
Gipuzkoako Foru Aldundia	Anoetako kirol instalazioak	4.297,96	209.429,36	4.205,08	205.224,28
Kirol kontseilu Goreña	Anoetako kirol instalazioak	2.859,86	147.972,50	2.791,93	145.180,57
Donostiako Udala	Anoetako kirol instalazioak	23.860,45	398.401,08	23.860,45	374.540,63
Gipuzkoako Foru Aldundia	Igerilekuaren aldagelen birmoldaketa	33.031,77	539.518,91	33.031,77	506.487,14
Donostiako Udala	Anoetako kirol instalazioak	25.794,11	569.584,71	25.794,11	543.790,60
Eusko Jaurizaritza	Estadioaren birmoldaketa	126.415,10	6.320.754,70	126.415,10	-6.194.339,60
Gipuzkoako Foru Aldundia	Estadioaren birmoldaketa	75.471,70	3.773.584,90	75.471,70	3.698.113,20
Donostiako Udala	Miniestadioa	0,00	14.900,00	0,00	14.900,00
Donostiako Udala	Paco Yoldi gimnasioa birmoldatzea	14.988,32	394.851,13	14.988,32	379.862,81
Gipuzkoako Foru Aldundia	Paco Yoldi gimnasioa birmoldatzea	7.545,11	237.126,24	7.546,11	229.580,13
Donostiako Udala	Paco Yoldi gimnasioa birmoldatzea	934,60	32.371,22	1.027,21	31.344,01
GUZTIRA		328.688,40	12.994.716,61	328.537,30	12.666.179,31

Ekitaldiaren amaieran, Sozietateak beharrezko baldintza guztiak bete zituen aurretik zehaztutako diru-laguntzak jaso eta erabiltzeko.



Gainera, "Epe luzerako zorrak" epigrafean 3.300.000,00 euroko zenbatekoa islatzen da, inbertsioa gauzatu arte itzulezina den aldetik islatu gabe dagoena, miniestadioaren birmoldaketari lotutako diru-laguntzaren zatiari dagokiona. Ikusi 2.7 oharra

Erakundeak sozietateen gaineko zergan tributatzen du, 10.6 oharrean zehazten den bezala, baina sozietateen gaineko zergari buruzko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 39.1 artikuluan aurreikusitako zerbitzu publikoak ematearen ondoriozko errentak ez dira sartzen. Jasotako diru-laguntzak, funtsean, zerbitzu publikoak emateari eragiten diotenez, ez dago haiei lotutako zerga geroratuagatik pasiborik.

15 OHARRA.- INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA

Sozietateak ez du ingurumenarekiko eragina txikiagotzeko eta ingurumena abestu eta hobetzeko aktibo ez-korrontean bilduta dagoen aktiborik; eta ekitaldian ez du jaso diru-laguntzarik, ezta gasturik egin ere, ingurumena babestu eta hobetzeko helburuz.

Sozietateak ez du ingurumen-jardunen ondoriozko gastuak estaltzeko hornidurarik egin, ingurumena babestu eta hobetzeari lotutako pasiborik ez zaiola eskatu behar uste baitu. Halaber, ez du uste horri lotutako kontingentziarik izan behar duenik.

16 OHARRA.- BEROTEGI-EFEKTUA ERAGITEN DUTEN GASAK ISURTZEKO ESKUBIDEEI BURUZKO INFORMAZIOA

Sozietateak 2024ko eta 2023ko ekitaldietan egiten duen jarduera dela eta; sozietateak ez du erantzukizunik, gasturik, aktiborik, ez hornidurarik eta ingurumen-gertakaririk, ondareari, finantza-egoerari eta haren emaitzei dagokienez esanguratsuak izan daitezkeenak. Hori dela eta, ez da honi buruzko xedaketarik sartzen Memoria honetan, ingurumen-gaiei buruzko informazioari dagokionez.

Bestalde, 2024ko eta 2023ko ekitaldietan, sozietateak ez du berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubiderik izan.

17 OHARRA.- ERAGIKETAK LOTUTAKO ZATIEKIN

Administrazio Organoko kideek ez dute inolako kopururik jaso 2024an eta 2023an kargua betetzeagatik. Administrazio-organoa ez den goi-zuzendaritzako langilerik ez dagoela jotzen da.

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n, Sozietateak ez zien abalik, pensio-konpromisorik edo bermerik eman Administrazio Organoko kide zaharrei edo egungo kideei eta goi-zuzendaritzako langileei.

Ez dago gatazka-egoerarik, zuzenean edo zeharka, administratzaileen eta Sozietatearen interesen artean.

Bestalde, ez dira, bere kontura edo besteren kontura, sozietatearen xede soziala osatzen duen jardueramotaren antzekorik edo osagarririk egin.



2024ko eta 2023ko ekitaldietan loturadun erakundeekin dituzten transakzioen eta saldoen kopurua honako hau da:

2024 EKITALDIA

Enpresa	2024/12/31ko saldoak			Jasotako/emandako zerbitzuak	
	Merkataritza-zordunak	Merkataritza hartzekodunak	Beste zorrak	Alokairu-sarrerak	Beste Gastuak
Donostiako Udala			3.300.000,00		76.712,16
Kiroletako Udal Patronatua (*)				217.022,06	55.000,00
Donostia Kultura (*)	3.573,66			42.883,92	
Guztira	3.573,66	0,00	3.300.000,00	259.905,98	131.712,16

(*) Taldeko beste enpresa batzuk

2023 EKITALDIA

Enpresa	2023/12/31ko saldoak			Jasotako/emandako zerbitzuak	
	Merkataritza-zordunak	Merkataritza hartzekodunak	Beste zorrak	Alokairu-sarrerak	Beste Gastuak
Donostiako Udala		3.245,26	3.300.000,00		79.611,97
Kiroletako Udal Patronatua (*)		55.000,00		209.346,51	55.000,00
Donostia Kultura (*)				42.883,92	
Guztira	0,00	58.245,26	3.300.000,00	252.230,43	134.611,97

(*) Taldeko beste enpresa batzuk

18 OHARRA.- BESTE INFORMAZIO BAT

18.1. Auditoretza-ordainsariak: Sozietatearen kontu-ikuskariei 2024ko abenduaren 31n eta 2023an amaitutako urteko kontuen ikuskaritza egiteagatik ordaindu beharreko ordainsarien zenbatekoa 2.946,26 euro eta 3.300,00 euroko da, hurrenez hurren (zerga barneratu gabe).

19 OHARRA.- HORNITZAILEEI EGINDAKO ORDAINKETA BATEZ BESTEKO EPEARI BURUZKO INFORMAZIOA. HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. UZTAILAREN 5EKO 15/2010 LEGEAREN" INFORMAZIO-BETEBEHARRA"

Erantsita doan koadroan 2024 eta 2023 ekitaldietan hornitzaileei egindako batez besteko epeari buruzko informazioa jasotzen da.

	2024	2023
	Egunak	Egunak
Batez besteko hornitzaileen ordainketa epea	35,81	30,01
Ordainduriko eragiketen ratioa	37,28	32,57
Ordaintzeke dauden eragiketen ratioa	19,08	10,02
	Zenbatekoa (euroak)	Zenbatekoa (euroak)
Ordainketak guztira	1.121.756,88	1.180.756,97
Ordaintzeke	98.820,40	151.317,86
Epean egindako ordainketak	1.058.634,23	1.156.110,71
Epean egindako ordainketen %	94%	98%

	2024	2023
	Berankortasunari buruzko araudian ezarritako gehieneko epea (60 egun) baino epe laburragoan ordaindutako fakturen kopurua	292
Ekitaldian ordaindutako fakturen kopuru osoa	341	280
Ordaindutako fakturen guztizkoaren %	86%	90%



20 OHARRA.- ONDORENGO GERTAKARIAK

Ekitaldia ixten den egunetik, ez da gertakari ekonomiko-finantzariarik garrantzitsurik gertatu, sozietatearen finantza-egoeretan eta egoera orokorrean eragin handia izan dezakeenik.



ANOETA KIROLDEGIA – CIUDAD DEPORTIVA DE ANOETA, S.A.

**2024KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI DAGOKION
KUDEAKETA TXOSTENA**

1. SOZIETATEAREN EGOERA ETA NEGOZIOAREN BILAKAERA

***Eguno egoera**

Sozietatearen Galdu-Irabazien Kontuak 4.412,58 euroko galerak izan ditu, ibilgetuen amortizazioak 1.624.717,85 eurokoak dira, eta diru-laguntzak 328.537,30 eurokoak.

Ekitaldian Anoeta Kiroldetia S.Aren jarduerak Anoetako Kiroldetia S.Aren kudeaketa izan du jomugan.

*** Negozioaren bilakaera**

Aurreikuspenen arabera, erakundeak bilakaera positiboa izango du, hiriko kirolariek kirol-instalazioak gehiago erabil ditzaten bultzatuko da, ez bakarrik futbolera mugatuz, baizik eta beste kirol-diziplina batzuetara hedatuz. Horrela, pertsona gehiago kirol-sarean integratzea bilatzen da, jardueren dibertsifikazioa erraztuz. Era berean, instalazioetako erabiltzaileen baldintzak hobetu nahi dira, kirola egiteko ingurune egokiagoa eta erosoagoa ziurtatuz. Hobekuntza horrek gastuak handitzea dakarren arren, inbertsio hori epe luzerako onurek justifikatuko dutela jotzen da, bai komunitateko ongizateari dagokionez, bai jarduera fisikoa eta kirola sustatzeari dagokionez.

2. EKITALDIA ITXI ONDOREN IZANDAKO GERTAERA GARRANTZITSUAK

Administratzaileek ez dute inolazko gertakaririk sumatu 2024ko abenduaren 31 itxiera datatik Urteko Kontuetan nabarmen eragina izan dezakeena.

3. IKERKETAREN ETA GARAPENAREN ARLOKO JARDUERAK

Sozietateak ez du inbertsiorik egin arlo honetan.

4. AKZIO PROPIOAK EROSTEA

Ekitaldian, Sozietateak ez du inoiz ere beraren akziorik eskuratu edo erosi.



5. HORNITZAILEEI ORDAINTZEKO EPEEI BURUZKO INFORMAZIOA

Erantsita doan koadroan 2024 eta 2023 ekitaldietan hornitzaileei egindako batez besteko epeari buruzko informazioa jasotzen da.

	2024	2023
	Egunak	Egunak
Batez besteko hornitzaileen ordainketa epea	35,81	30,01
Ordainduriko eragiketen ratioa	37,28	32,57
Ordaintzeke dauden eragiketen ratioa	19,08	10,02
	Zenbatekoa (euroak)	Zenbatekoa (euroak)
Ordainketak guztira	1.121.756,88	1.180.756,97
Ordaintzeke	98.820,40	151.317,86
Epean egindako ordainketak	1.058.634,23	1.156.110,71
Epean egindako ordainketen %	94%	98%

	2024	2023
Berankortasunari buruzko araudian ezarritako gehieneko epea (60 egun) baino epe laburragoan ordaindutako fakturen kopurua	292	253
Ekitaldian ordaindutako fakturen kopuru osoa	341	280
Ordaindutako fakturen guztizkoaren %	86%	90%



Atxikitzen diren Urteko Kontuak eta Kudeaketa Txostena, 2024ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagozkionak, 2025eko martxoaren 31n egindako bileran eratu ditu Administrazio Kontseiluak aho batez, Akziodunek Batzar Nagusian baloratu eta, hala badagokio, onartzeko.

Aipatutako dokumentuak gorputz bakar bat osatuz aurkezten dira, 31 orrietan daude, azken hori barne, eta korrelatiboki zenbakituta daude. Identifikatzeko, Sozietatearen Administrazio Kontseiluko kide guztiek sinatu dituzte kontuak.

Kapital Sozietateen Legearen 253.artikuluan xedatutakoa betez; Administrazio Kontseiluko kide guztiek, egun horretan Sozietatearen Administrazioa osatzen dutenek eta, haien izenak sinadura gainean agertzen direnek, adostasuna adieraziz sinatzen dituzte Sozietatearen Urteko Kontuak eta Kudeaketa Txostena.

Donostia, 2025eko martxoaren 31a

Administrazio Kontseilua

Eneko Goia Laso
Lehendakaria

Iñaki Gabarain Gaztelumendi
Kontseilu-kidea

Ricardo Burutaran Ferre
Kontseilu-kidea

Martin Ibabe Eceiza
Kontseilu-kidea

Itziar Iturri Arrazola
Kontseilu-kidea

David de Miguel Les
Kontseilu-kidea

Miren Albistur Garmendia
Kontseilu-kidea

Guillermo Arturo Jesus Sanchez-Berra Quintana
Kontseilu-kidea

Joanes Emilio Fiel Echeverria
Kontseilu-kidea

